

KOMIKIA ETA BERTSOA AZERIA ETA OTSOA

Hara hemen Sustrai Colina eta Patxi Gallego, aurrez aurre.
Bientzat gaia edo eszena bera izango da.
Batak bertsotan marraztuko digu, eta besteak komikiz esango.



**Sustrai
Colina**
Akordarrementeria

Saioa: Txapelketa Nagusia 2013, Maule.
Gaia: Neork ez zuen espero. Baina lortu egin duzu.




Doinua:
ETAren su-etenetik
Neurri berezia

Hamazazpi urte ditut
ia ia egin naiz **handi**
hortzetako aparatua
eta agnea **ugari**,
sudurpean hiru bizar
agertzen zaizkit **nabari**...
Horrelaxe jaio nintzen
ta bota kulpak **amari**!
Lagunak trufaka dauzkat
beti adar-jotzen **ari**:
"lakuko zisne itsusia"
deitzen zidaten **aspaldi**...
Ta gaur muxu eman diot
klaseko **ederrenari**.

Hileak baneramatzan
bere atzetik **zer-suma**
nahiz zaila diren elkartzen
larrosa eta **asuna**.
Amaia oso jatorra,
ederra bezain **txukuna**,
bilakatu dut maitea
nere printzesa **kuttuna**.
Berak berezkoa dauka
halako **edertasuna**
eta nik hori ezean
bada, **naturaltasuna**.
Gure amak arrazoi zuen:
itsua da **maitasuna**!

Berai esker bihotz forman
ikusten nuen **arbela**
beregana zijoazen
konpasa ta **erregela**.
Muxu bat eman ta utzi nau
emozioz **mela-mela**
bukatu da rekreoa
ta hau da sentipen **itzela**!
Pasilloan hortxe noa
nere zain dut **ikasgela**
han sartu naiz toreroa
zezen-plazara **bezela**
nere inbiritan daudenak
izorratu **daitezela**!

Patxi
Gallego
Palacios



Bertso
komikia